



DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKAKO KARTEL LEHIAKETA

1. Lehiaketa honek 44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokako kartel ofiziala aukeratzea du helburu.
2. Lehiaketan parte hartzen duenak lan bakarra, originala, argitaratu gabea eta teknika librekoa aurkeztuko du.
3. Kartelean erabilitako ikurrak ezin dute inolako diskriminaziorik egin jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozeintan edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta.
4. Kartela Cd-Rom edo DVD batean helaraziko da. Ezaugarriak:

-Formatua: JPG, TIFF edo PDF
-Erresoluzioa: 300 ppp.
-Neurriak: 70 x 50 (ez etzana)

5. Kartelean derrigorrez jarri beharreko testua hau izango da:

44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka 2009ko Abenduaren 4tik 8ra
--

6. Lanak 2009. urteko uztailaren 1erako (barne) aurkeztu behar dira.
Aurkezteko lekua:

Gerediaga Elkartea,
Larrasoloeta kalea 3. zenb.
(48200 Durango)

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara

Informazio telefonoa: 94 681 80 66 E.mail:gerediaga@durangokoazoka.com

7. Kartelak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira eta Cd-aren karatulan lema bat idatzia izango dute. Horrekin batera, gutunazal itxi bat aurkeztuko dute, eta kanpoko aldean, kartelaren lema bera idatzita izango du. Barruko aldean, egilearen izen-deiturak, helbidea, telefono zenbakia, e-maila eta Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia sartuko dira.



8. Antolatzaileek ez dituzte bere gain hartuko lehiaketan parte hartzen duten lanek jasan ditzaketen galera edo kalteak. Lanak igortzeak eta itzultzeak eragindako gastuak ere lehiakideen kontura izango dira.
9. Behin lehiaketa ebatzita, lehiaketara aurkeztu diren gainontzeko lanak jende aurrean erakusgai ipini ahal izango dira. Espazio kontua dela-eta, epaimahaiak erabakiko du zeintzuk erakutsiko diren, kartelen kalitate artistikoa kontutan hartuta Gerediaga Elkartek aukeratutako lekuan. Lan horrek ikusgai jartzeko eta eurei zabalkundea emateko eskubidea izango du Gerediaga Elkartek ebatzia ezagutzera eman eta azaroaren 2an erakusketa amaitu bitartean. Epe horretan eskubideak dohainik eta berari bakarrik utzi zaizkio.
10. Erakusketa amaituta, eta 30 egun balioudun iraganda aukeratu gabeko lanen egileek beren obrak erretiratzeko ez badituzte, horiei uko egiten dietela ulertuko da, eta Gerediaga Elkartek nahi duenerako erabili ahal izango ditu, erreklamazioko edo kalte-ordaineko inongo eskubiderik aitortu gabe. Kartelak itzul diezazkieten (betiere lehiakideen kontura), lehiakideek Gerediaga Elkartekin jarri behar dute harremanetan.
11. Saria 1.300 eurokoa izango da. Diru kopuru horri PFEZ dela-eta dagokion atxikipena aplikatuko zaio.
12. Epaimahaia honako honek osatuko dute: Gerediaga Elkarteko kide bi eta diseinuaren, komunikazioaren edota arte plastikoaren arloko hiru profesional.
13. Kartelak teknika aldetik tonalitate-aldaketaren bat edo beste beharko balu hobeto inprimatzeko, epaimahaiak aldaketok agindu ahal izango ditu, egileari alde aurretik galdetuta eta berarekin lankidetzan. Saria emanda, Gerediaga Elkartek saritutako lanaren jabego intelektualari dagozkion eskubide ekonomiko guztiak bere egiten ditu eta lana askatasun osoz erreproduzitu, banatu eta jendaurrean paratu ahalko du, edozein euskarri eta formatutako erreprodukzio eskubideak barne direla.
14. Lehiaketan parte hartzeak baldintza guzti-guztiak onartu direla esan nahi du.